

Musulmanen Ramadana

Entre los cinco preceptos básicos del Islam figura el del ayuno (sawm), que en el mes del Ramadán tiene un lugar señalado para la comunidad musulmana. En este año de 2015 (1436 de la hégira) el mes de ramadán se inicia el 18 de junio y finaliza el 17 de julio. Los creyentes y practicantes musulmanes lo celebrarán con la intensidad religiosa y comunitaria tradicional, ayunando, desde luego, pero también con la celebración, la oración, y la ayuda a los necesitados.

Erlijio guztiek izan ohi dituzte, beren urteroko egutegian, une "bero" eta bereziki maitatuak. Kristauon artean, horrelakoak dira Aste Santua eta Pazko-aldia, edo Eguberri-jaiak. Islam-ean ere ez dira falta antzeko jaiak.

Musulmanen ospakizun-jaiak

Musulmanen urteroko egutegian badaude festaburu bereziki ospatuak, Mahomaren bizitzarekin zerikusia dutenak nahiz Goi-Agerkunde islamiarreko gertakari seinalatuak gogorarazteko ospatu ohi direnak, otoitzerako edo baraurako ez ezik sinestunen eta lagunen artean jai egiteko aukera ematen dutenak.

Jai horiek, gure Gabonak bezalatsu, ez dira izaten meskita jaiak bakarrik, gizarteko ospakizun ere izan ohi dira, familian eta auzo artean bizitzen direnak. Gehienetan, tradizio luzekoak dira, eta garrantzizkoenak mundu musulman osoan eta aldi berean ospatzen diren jaiak ditugu.

Hemen, ospatu-behar juridikoa aitortzen zaien bi jai kanoniko nagusi aipatu behar ditut: Sakrifizio-Jaia (*al-id al-kabir*: Jai Handia"), Abraham-en sakrifizioa gogoratzeko ospatua. Ahal duen sinestunak ardia erosi, hil eta ingurukoekin batera jango du egun horretan. Festa erlijiosoa da, baina baita sinestunen arteko batasuna indartzekoa ere.

Bigarren jai handia Ramadan bukaerako azken egunekoa da (*id al-frit*), eta giroaren aldetik

badu antzik gure Eguberri-jaiarekin: zorionak ematen dira, pozezko azalpenak atontzen dira, gozokiak eskaini eta batez ere haurrei opariak banatu. Urteko egunik ospatuena da.

Beste hainbat jai dago, noski, Islam-ean, batzuetan norberaren bizitzako ospakizunak bizitzeko (jaiotza, erdaikuntza, ezkontza, heriotza), bestetan eskualdeko edo tokian tokiko gogorakizunak aintzakotzat hartzeko, eta, nola ez, orokorrean islamiar guztien data gogoangarriak elkartasunean antolatzeko, eta inoiz tradizio edo joera jakineko gertakari historikoak bihotz beroz ospatzeko.

Norbanakoaren datak oso familiartearen ospatu ohi dira, baina era berean lagunarte zabalagoa izan ohi dute, eta mutikoen erdaintzuntza, adibidez, jaialdi eder baterako aukera izaten da, aspaldidanik eta gaur egun.

Islam-a batasun unibertsal eraberdin baten gisa ikusi ohi dugu, baina esan beharra dago Islam aurreko ohiturek eta geroko tokian tokikoek eragin handia izan dutela jaiak hautatu eta ospatzean. Nolabait esateko, herri musulman ezberdinen tradizioak ongi txertatuta daude musulmanen urteko egutegietan.

Batzuetan izen bereko jai batek, *Axura* deituak esate baterako, esanahi ezberdinak izan ditzake sunita eta xihiten artean: haientzat Mahomak aukeratutako barau-jai izango litzateke Maghreb-en; baina xihitentzat Kerbalan erahil zuten al-Husein martiriaren heriotza-



oroitzapena (680). Telebistetan ongi zabaldua dago xihiten jai honen albiste.

Ramadanaren ospakizuna

Esan bezala, Ramadan (urteko bederatzigarren hilabetea) barau eta gogoetarako hilabetea da musulmanen artean, eta garrantzi sozial berezia du herritarren erlijiotasunean. Urteko beste hiletatik oso berezia da, eta propio arau jakinez antolatua, norberarentzat, familiarako eta meskitako jaietan, izan ere Islamaren bost arau nagusietako bat baita Ramadaneko hau.

Koran-ak aipatzen duen hilabete bakarra da *ramadan*: "Ramadan hilabetean errebelatu zen Korana, gizakientzako norabidea" (2, 185). Hira mendian eta hilabete honetan, gaeuz, jaso zuen Mahoma Profetak Jainkoaren Hitzza, eta ordutik da bera Haren mezulari. Hilabete sakratua da Ramadan, Profetaren hitzetan esateko: "Etorri zaigu Ramadan; bedeinkazioen hilabetea da, Jainkoak bere errukiaz inguratzen gaituena". Meskitak ahaleginduko dira sinestunak gauero erakarri eta egunak zehar Koranaren elkartasunezko irakurketa osoa egiten; barauarekin batera otoitzari leku egiten.

Baraua barau, Islam-ak ez du izan Kristautasunak sarritan bizitako aszetika zaildu eta gogorra: munduko ondasunak eta giza izaera bera gozatzekoak direla azpimarratu du Islam-ek, dena ere bere neurritasunean.

Kultura ezberdinetako musulmanek funtsean Ramadan bera ospatzen dute. Iluntzean hartzen da eguneko otordu nagusia, eta egun-sentia baino lehen bigarren jatordu arinagoa. Egunez ezin da jan-edaririk hartu. Ilunabarra da sosegurako unea, bisitaldiak egitekoa, otoitz egin eta Korana irakurtzeko abagunea. Batez

ere, hilabete horretako azken hamar egunak dira meskitara biltzeko aproposenak.

Berez, Ramadana ez da opor-hilabetea espiritualtasunaren hila baizik. Barau egiten da, baina zerbait haragoko asmoarekin: traszendentziaren kontzientzia indartzeko (Allah izan badela, alegia), giza elkartasuna indarberitzeko, pobreen miseriak gogoan izateko, norberaren zuzentasun morala areagotzeko.

Hiru eguneko *Id al-frit* jaiarekin amaitzen da Ramadana: meskitara joan behar da, otoitzaldi bat egin (*salat*) eta sermoia entzun, aparteko limosna ematen zaio pobreren bati, elkarri opariak eskaintzeko egunak dira, janari bereziak prestatu eta lagunartean egiten da jai.

Gure artean, Erdi Aroko Erribera nafarrean behintzat indarrean egon zen Ramadana 714tik 1525era arte. Erdi Aro hartako musulman euskal herritarrek Ramadana nola ospatu zuten zehazkiago jakitea ez da erraza; baina badakigu, behintzat, IX. mendetik aurrera zein Eskolatakoa izan zen hemengo Islama.

Arabiako Medina hiriko *Umma* edo komunitate islamiarretik zetorrena izan zen Penintsulan Eskola erlijioso nagusia. Malik ibn Anas (711-796), "Medinako Imam-a" deituaren *Al-Muwatta* suertatu zen Al-Andalusero fededunen liburu gidaria, 815etik aurrera azkenik ofizialtasunik aitortuena izan zuena.

Medinako tradizioak zeuden bilduta liburu hartan, aurrekoen maisuek esandakoak, haiek guztiak banan-banan aipatu eta testuak beraiengandik jasotzen zituela. Ramadaneko barauaz kasuistika zehatza du, meskitako otoitzaldietako errituala ere begiratuz. Orain, ez dakit zein Eskolatak tradizioa izango duten gure gaurko musulmanek.

Joseba Intxausti